

Eratsun

Aurkibidea

Udalerria: Eratsun

Sarrera



Nafarroako ipar-mendebaldean dagoen herria, Malerreka eskualdekoa. Herri hauek ditu mugakide: Ezkurra, Goizueta, Beintza-Labaien, Saldias eta Basaburua.

- **Biztanleak:** 160
- **Euskaldunak:** %94,94

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **4**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **20**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **20**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

None Mahai-ingurua Eratsunen



Eratsunen egindako mahai-ingurua. Bertan sei herritarrek hartu zuten parte. Ezkerretik eskubira: Juanito Estanga, Jexux Deskarga, Antonio Telletxea, [Pilar Telletxea](#), [Juanito Sagastibeltza](#) eta [Delia Telletxea](#).

Juanito Sagastibeltza *Tolare* (1950)



Eratsunen, Lopeneko bordan jaioa. Berak sei urte zituela Tolare baserrira aldatu ziren. Bi gurasoak baserritarrak: ama eratsundarra eta aita leitzarra, harrobian lan egina erretiroa hartu arte. Hiru senidetan gazteena. Malerrekako bere garaiko hainbat gizasemeren antzera, basomutil ibilia; hogeita lau urtez, Frantzian batez ere: sei eta bederlatzi hilabete artean pasatzen zituzten etxetik kanpora. Hainbeste gazteren itzuleran, Eratsunen festa giro izugarria sortzen zen eta festarik festa eta kantuz kantu ibiltzen ziren. Kantazaletasun horretan Eratsun oso herri berezia izan omen da. Juanitori egindako elkarrizketan Antonio Telletxea (ezkerrean), Jexux Deskarga (helduena) eta Juanito Estanga (gazteena) ere agertzen dira.

Delia Telletxea Bengoetxea (1944)



Biatenea etxean jaioa. Gurasoak ere eratsundarrak zituen. Aita ikazkin eta harrobian lanean ibilia, eta ama Anastasia Donostian zerbitzari izandakoa (Patziku Perurenaren "Leitzako errege-erreginak" liburuan agertzen da). Delia etxean eta Leitzako Sarrio paper lantegian lan egindakoa da. Beti bere jaioterrian bizi izan da. Elizako ezkilak jotzen ditu. Orain dela urte batzuk Xorroxin Irratian herriko korreponsal gisa aritu zen (8-10 urtez). Bost senidetan hirugarrena, [Pilar](#) ahizparekin batera elkarrizketatu genuen.

Pilar Telletxea Bengoetxea (1942)



Biatenea etxean jaioa. Gurasoak ere eratsundarrak zituen. Aita ikazkin eta harrobian lanean ibilia, eta ama Anastasia Donostian zerbitzari izandakoa (Patziku Perurenaren "Leitzako errege-erreginak" liburuan agertzen da). Pilar Leitzako Sarrio paper lantegian lan egindakoa da. Beti bere jaioterrian bizi izan da. Bost senidetan bigarrena, [Delia](#) ahizparekin batera elkarrizketatu genuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. "Estellan kargatu naiz" kanta (ERT-001/010)

"Estellan kargatu naiz Tafallarako" kanta abesten du Deliak. Azalpenak ematen dituzte.

2. "Estellan kargatu naiz" kantari buruz (ERT-001/011)

"Estellan kargatu naiz Tafallarako" kantari buruzko azalpenak.

3. "Aitak eman daut dotea" kanta (ERT-001/013)

"Aitak eman daut dotea" kanta abesten dute.

4. "Urteberri berri" kanta (ERT-001/015)

"Urteberri berri" gabonetako kanta abesten dute. Errege bezperan joareekin etxez etxe eskean aritzen ziren.

5. "Dios te salve" kanta (ERT-001/016)

"Dios te salve" koplak abesten dute. Ezkontzako pregona edo programa egiterakoan abesten zuten. Ezkongaien ezkontza baino astebete lehenago jatordua egiten zuten lagunekin; mutilak mutilekin, neskak neskekin. Koplak kantatzen zizkioten mutilari.

6. Ur eta su berriaren erritua (ERT-001/020)

Urarekin erritua Pazko bezperan egiten duten, Jesukristoren berpiztearengatik. Sua egiten dute atarian lehenengo eta apaizak bedeinkatu egiten du. Mezaren ostean, egur koxkor bana hartu eta sua hartzen dute, su berria, etxerako. Urarekin berdinean egiten dute.

7. Eskolan euskara zigortua, apaiza euskaltzalea (ERT-001/022)

Etxean beti euskaraz egiten zuten baina eskolan ez. Euskaraz entzunez gero, zigortu egiten zituzten. Gurasoen garaian eraztuna ipintzen zieten, euskaraz egitearren. Apaizak euskaraz egiteko eskatzen zien. Arraizkoa zen apaiza.

8. Aita ikazkin mendian (ERT-001/024)

Aita ikazkina zen eta mendian pasatzen zituen asteak. Amak janaria prestatzen zion eramateko. Itzuleran txokolatea ekartzen zien aitak.

9. Eztanga soinujolea (ERT-001/025)

Igandetan soinua izaten zuten plazan dantzarako. Soinujolea Eztanga Bengoetxea zen.

10. Ilun-ezkila jotakoan, etxera (ERT-001/026)

Soltean dantzatzen zuten. Helduta dantzatzea bekatua zela eta, ez zuten halako kantarik jotzen. Ilun-ezkila entzundakoan, etxera joan behar izaten zuten.

11. Angel Mariezkurrena txistularia (ERT-001/028)

Txistua Angel Mariezkurrenak jotzen zuen. Sastrea zen.

12. Artoa zuritzen, kantuz (ERT-001/032)

Artoa zuritzeko etxera biltzen zen jendea. Gaztaina erreak eta txokolatea jaten zituzten eta kantuz aritzen ziren.

13. "Arduaren neurria noa esaitera" bertsoak (ERT-001/033)

Arta-zuriketetan Markesaren Alaba beti abesten zuten. "Arduaren neurria noa esaitera" bertsoa abesten dute. Nahasi egiten dira pixkat.

14. "Ameriketara joan nintzan" kanta (ERT-001/037)

Artoa zuritzen ari ziren bitartean kantatzen zuten eta gero jatordua egin. "Ameriketara joan nintzan" kanta abesten zuten.

15. Erantsundarrak txingurriak (ERT-001/039)

Erantsundarrei "txingurri gorri" esaten diete. Ezkurrakoei "turutu" esaten zieten. Pikea izaten zuten.

16. Migel Mindegia bertsozalea (ERT-001/040)

Migel Mindegia bertsozaleari buruz hitz egiten dute.

17. Makiak ikusi zituenekoa (ERT-001/044)

Aita ikazkina zenez, udan eta udazkenean mendian egoten zen. Gerora, harrobian aritu zen. Mendian zebilela makiak ikusten zituen aitak, handik zehar pasatzen baitzuten muga. Deliak ere ikusi zituen behin.

18. Argindarra bai, urik ez (ERT-001/049)

Argindarra errotatik etortzen zen. Trumoiarengatik edo lehorteengatik eteten zieten. Ura iturritik hartzen zuten. Labaderoa ere bazegoen; Pilar asko joaten zen.

19. Lantegien aurretik, mutilak mendira eta neskak neskame (ERT-001/051)

Lantegien aurretik, gizonak mendian aritzen ziren lanean, bertan zein Frantzian. Artzain Ameriketara gutxi joaten ziren Eratsundik; Sunbillatik eta Baztandik gehiago. Neskak neskame joaten ziren, Iruñera edo Gipuzkoara.

20. Zubietako ijitoak (ERT-001/053)

Zubietan bizi ziren ijito gehienak, inguruan. Pasarte bat kontaktzen du haiei buruz. Eskean aritzen zirela diote. Zubietari ijito herria esaten diote.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com